

IMANOL LANDA

ELKARTEBURU ETA GETXOKO ALKATEAREN HITZALDIA,

EUDELen BATZAR NAGUSIAN, Getxon, 2017ko ekainaren 1ean

Egun on, ongi etorriak izan zaitezte guztiok Getxora eta 2017ko EUDELeke Batzar Orokorrera.

Hasi baino lehen, EUDELetik elkartasuna helarazi nahi diegu **Bilboko herritarrei**, bertako Alkatearen bitartez, joan den asteburuan Zorrotza auzoan izandako zoritxarreko istripuagatik.

Esan behar dugu, halaber, sakon nahigabetuta gaudela Europako eta munduko gainerako lekuetako herriak behin eta berriz kolpatzen dituzten eraso terroristengatik eta indarkeriaren espiralagatik, **Kabulgo** atzoko sarraskia bezala edo iragan astean **Manchesterren** izandakoa bezala. Euskal udalerriek gure elkartasuna helarazten diegu biktimei, eta geure egiten dugu euren familien samina; gogoan eta bihotzean ditugu intolerantziagatik eta gorroto zein indarkeriaren zentzugabekeriagatik seme-alabak galdu dituzten guraso horiek.

Sufrimendu horren guztiaren aurrean, udalerriek zuzenean ukituta sentitzen gara bizikidetza ehuntzeko ezinbesteko espazio gisa, dibertsitatearen errespetutik.

Horrenbestez, giza eskubideen, askatasunaren, demokraziaren eta Europako balio konpartituen defentsa inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun.

Erronka orokorren aurrean, europar gobernu guztien Batasunerako deiak garrantzi handiagoa hartzen du. Kontinente zaharrak berritu egin behar du bere proiektua, eta horretarako ahalmena du gainera. Aukera ezin hobe dugu orain gizartearen kohesioan eta integrazio politikoan aurrera egiteko, **Europa bere herritarrekin konektatzeko.**

Euskadiko udalak EUDELen Batzarrean elkartu garelarik, **aukera aparta** iruditzen zaigu Euskadiko eta Europako udalen arteko aliantza azaltzeko, gure herritarren bizitza hobetzeko misioa baitugu denok.

Erronka eta desafio orokorrek tokian tokiko irtenbideak behar dituzte. **Udalen ahotsa entzun behar du Europak, errealitatera lotuta egoteko eta herritarrekin konfiantzan oinarritutako harreman berri bat sortzeko.**

Tokiko demokrazia da Europa berritzeko giltzarria. Horixe da bidea.

Ibilbide horretan **elkarrekin lan egin behar dugu** erakunde guztiok eta elkarlanean jardun behar dugu, aliatuen antzera eta bidaide bezala. Horregatik egin diegu gure urteko topaketa honetan parte hartzeko gonbita lehen mailako erakunde eragileei, hau da, Eusko Jaurlaritzari eta Europako Kontseiluari.

Gaur, gurekin dago Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu **Josu Erkoreka jauna**; berari eskertu nahi diogu bai berton egotea eta bai beti prest agertzea EUDELein kolaboratzeko, horrela egin baitu eskatu izan diogun guztietan.

Eta, gure artean, Europako Kontseiluko goi mailako agintari bat ere badugu, **Gudrun Mosler-Törnström andrea**, Toki eta Eskualde Botereen Kongresuaren lehendakaria.

Lehendakari andrea, Euskal udalentsat ohore handia da zu gure Batzarrean edukitzea. Eskerrik asko gure gonbitari erantzuteagatik, eta atsegingarria da guretzat EUDELen bitartez Euskal Herrirako lehenengo bisita ofiziala bultzatu izana. Gainera, Kongresuaren Toki Ganberako kide naizen aldetik, eta bereziki Getxoko alkate naizen aldetik, ohore handia da anfitrioi gisa jardutea eta harrera egitea Europa handiko toki eta eskualde mailako botereen –hau da, Europako Kontseilua osatzen duten 47 estatu kideen— ordezkari gorenari.

Madame President, welcome to EUDEL, "our home", the home of all Basque municipalities.

Ezin egon liteke hau baino "aurkezpen gutun" hoberik, hain zuzen ere, hautetsi guztiak Getxoko itsas terminal berri eta moderno honetan elkarturik osatzen dugun irudia baino hoberik; eta ekitaldi hau izango da, gainera, oraintxe bi hilabete egin zen inaugurazioaren ondoren lehenengo ekitaldia gune honetan. EUDELen izenean eskerrak eman nahi dizkiot Bilboko Portuko Agintaritza eta bertako presidenteari, leku paregabe honetako ateak zabaltu dizkigulako, gure europar kideekin batera jarduteko.

Terminal hau jada itsas bidaien turismoa Euskadira sartzeko atea da, eta, horrenbestez, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko tresna.

Terminal hau aukera handiko ekipamendu bat da, jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta enpleguak sortzeko tresna berri bat. Herrialde mailako azpiegitura estrategikoa da, baita bisitan datozkigunentzat ere; izan ere, hobetu egiten du itsaso bidezko gure lotura nazioartean, eta handitu egingo du Euskadira iristen diren turisten trafikoa. Hazten jarraitzeko osagai giltzarria, inondik ere.

Berriz ere, itsasoa eta portua gure iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko nahitaezko erreferentzia gisa, aberastasuna sortzeari dagokionez.

Itsasora zabaldua den terminal honen antzera, **EUDEL ere Europari lotuta dago**. Euskadiko Udalen Elkarteak Euskadiko udaletara abangoardia "erakartzeko" lanean dihardu, eta, aldi berean, **Europara hurbildu nahi ditugure udalak**.

EUDEL-CPLRE LOTURA, EUROPAREKIKO LOTURA

EUDELeK bokazio europazale sakona du, eta gure elkartearen 35 urteko historian zehar europar proiektu ugaritan parte hartu dugu. Euskadiko udalak oso presente daude Europan. EUDELen bitartez, hainbat erakundetan parte hartzen dugu, besteak beste Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseiluan –Udalen Elkartearen sare handi bat dela esan genezake–, eta Europako Kontseiluan eta bertako Kongresuen (CPLRE).

Erakunde hau ozen mintzatzen da beste erakunde batzuen aurrean, gure interesak defendatzen ditu eta Estatuaren politikek udalen autonomia zanpatu ez dezaten zaintzen du.

Lotura estuen bitartez elkartuta gaude bi erakunde horiek, bai erakunde mailako loturen bitartez bai lotura emozionalen bitartez. Gure jarduerak bide paraleloak egiten dituzte hainbat eremutan, besteak beste, enplegua eta toki garapena, gizarte zerbitzuak, berrikuntza edo europar hizkuntza gutxituen babesean, esaterako, euskarari dagokionez.

EUDELen eta Kongresuen arteko **lotura sendoena** Udalerrien Elkartearen aitortza bera da, “euren interes komunak babestu eta sustatzeko”, Toki Autonomiaren Europako Gutunaren 10. artikuluan jasotzen den bezala.

Eremu zehatz horretan, **proiektu komun berri bat** jarri dugu abian. EUDELeK esperientzia pilotu bat egingo du, udal multzo batean, zeinaren helburu zehatza izango den, Europar Kontseiluaren beraren metodologian oinarrituta, **Bikaintasunaren europar Zigilua** ezartzea **Gobernantzaren alorrean**.

Gobernantza onaren barruan, funtsezko euskarria da **berdintasuna**. Eta EUDELentzat ere hala da. Horregatik hautatu gaituzte 2018an Bilbon berdintasun, inklusio eta dibertsitate politikei buruzko Europar Biltzar garrantzitsuen antolatzaile. Mosler lehendakaria gure artean dugula baliatuta, eskura emango diot datorren urtean berriro ere gurekin batera Bilbon egoteko gonbita.

EUOPAR GUTUNA, GURE INSPIRAZIO ITURRIA

Europar Kontseiluko Kongresua Europako toki boterearen funtsezko zutabea da: **Toki Autonomiaren Europako Gutuna**, alkateok beti lagun izan behar duguna gure eguneroko zereginetan.

Nazioartean erreferentziazko hitzarmen bat izateaz gainera, Gutun hori izan da Euskadiko Toki Erakundearen Legearen zuzeneko **inspirazio iturria**.

Euskal legea, Gutunaren aginduekin bat eginez, **Europaren abangoardian dago**. Bi aurrerabide nagusi egin ditu: batetik, udal eskumenak eta horien finantzazioa ezin bereiz litezkeen osagai gisa integratzea; eta bestetik, toki autonomia bermatzeko mekanismoak finkatzea hainbat organoren bitartez, besteak beste, **Toki politika publikoen Kontseilua** eta Toki Gobernuen Batzordea.

Baina zertarako balio du toki autonomiak? Udal politikaren egunerako jardunean, zer ondorio ditu?

Lehenengoa; funtsezko tresna da **udal kudeaketa eraginkor eta efizientea** gauzatzeko, herritarrei zerbitzu publikorik onena eskaintzeko. Eta nola? Kudeatzeko, erabakitzeko gaitasun propioetik, eta baliabide propioetatik. Hori esan nahi du toki autonomiak.

Bigarrena; toki autonomiaren “osasun ona” **governantza on** batek bermatzen du. Gobernantzak kooperatzea esan nahi du.

Gure toki autonomia ondo garatzeko, udal gobernuok gainerako eragile instituzional eta sozialekin elkarlanean aritu behar dugu, eta, batez ere, gure herritarrekin.

Hirugarrena; Gobernantza ona, era berean, **subsidiariorotasun** printzipioan oinarritzen da, zeinaren helburua baita hartzen diren erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen har daitezela bermatzea. “Hurbiltasuna” dute oinarri, eta hortik eratortzen dira gobernantza onaren gainerako printzipioak, esate baterako, etika, gardentasuna, herritarren parte-hartzea edota berdintasuna.

EUDELen EGITURAZKO BI ERRONKA

Udal legealdiaren ekuatorean gaude orain, eta eremu sektorial ugaritan (enplegua, gizarte zerbitzuak, berrikuntza, etab.) ditugun eginbeharrez gainera, “egiturazko” bi erronka garrantzitsu ditugu:

- **1 erronka:** Euskadiko Toki Erakundeen Legearen garapena
- **2 erronka:** EUDELeK udal eremuko kontsentsuaren erreferente gisa betetzen duen zeregina sendotzea

Lehenengo erronkari dagokionez, Legea praktikara eraman behar da.

Toki Erakundeen gure Legea Toki Autonomiari buruzko Europar Gutunaren oinordeko zuzena da. Finantzaketarik gabe ez dago autonomiarik, eta, 30 urte legerik gabe igaro ondoren, lortu dugu.

Eta orain iritsi da abian jartzeko unea, eta horrek erakunde guztien inplikazioa behar du, ez bakarrik Udalena.

Legeak "errodajea" behar du, eta horretan dihardugu; EUDEL Eusko Jaurilaritzarekin eta Aldundiekin batera ari da lanean.

EUDELentzat, legearen garapena oso erronka konplexua da, baina baita zoragarria ere: gure erakunde arkitekturaren "puzlea" osatu behar da.

Legearen mekanismoak aktibatzea eta horien ahalmen guztia ateratzea izango da gure **benetako 'Ekintza Plana'** legealdia bukatu bitartean. Plan estrategiko ororekin gertatzen den bezala, Legeak iraunkorra izan behar du, eta horren garapenak hurrengo urteetan ere aurrera jarraitu beharko du datozen urteetan, etengabeko hobekuntza moduan.

EUDELen bigarren erronka barne egiturari dagokio.

Urtebete da gure Batzorde Eragilea berritu zela (Elgoibarko Batzarra, 2016ko maiatza) eta eskerrak eman nahi dizkiet Batzorde Eragilea osatzen duten kide guztiei beren konpromisoagatik eta EUDELen aldeko lanagatik, eta modu berezian gure kide berriei, beren leialtasunagatik, bete-betean inplikatu baitira Elkartearen lanean, erantzukizunez eta jarrera guztiz eraikitzailean.

EUDEL da Euskadiko udalerrien dibertsitatearen eta aniztasunaren ispilua, eta, hortaz, **akordioen dinamikaren bidetik jarraitu behar dugu**, eta udalen eremuan babes handiko hitzarmenen eta kontsentsuen egile gisa indartzen jarraitu behar dugu.

Udal gobernuen batasuna (ahots bakar bat) da gure indar nagusia gainerako erakundeen aurrean.

AMAIERAKO MEZUA

Europaren berrikuntza ez ezik, toki autonomiaren garapena ere ezin gelditu litezke utopia hutsa balira bezala.

Euskadiko **alkate guztiontzako** mezua da hau: iritsi zaigu ahalduentzeko unea.

Udalek elkarrekin lan egin behar dugu beste erakundeen aurrean **gure posizio komuna indartsuagoa izan dadin** eta udal botereak indar handiagoa eduki dezan, erabakiak hartzen diren eta herritarrengan eragina duten politikak diseinatzeko diren foroetan.

Bi tresna ditugu udalak funtsezko eragile izan daitezkeen bai Europan bai Euskadi barruan: Europar Gutuna eta Toki Erakundeen Legea, hain zuzen ere.

Udalek **autonomia handiagoa** behar dugu, herritarren zerbitzura eraginkortasun eta efikazia handiagoz jarduteko, pertsonen interesak defendatzeko eta beren premiei hobeto erantzuteko, hurbiltasunez, enpatiarekin eta etengabe kontuak emanez.

Datozen urteak funtsezkoak dira Europaren etorkizunarentzat. Eta, horregatik, Europak berriro egin behar du, eta badu horretarako ahalmena. Eraldaketa horretan, udal gobernuok aldaketaren **eragile aktibo** izan behar dugu, Gobernantza onaren eredu berrira iristeko bidean.

Udal gobernuentzako une erabakigarri honetan:

EUDELek bere burua eskaintzen die udalei Europarekiko "lotura-portu" gisa jarduteko eta abangoardietara eta balio komunetara eramango gaituen guztian laguntzeko.

EUDELek konpromiso sendoa du, hain zuzen ere, toki autonomiaren "zaindari" izatearena Euskadin, eta, horretarako, lanean jarraituko dugu, udal eremuan kontsentsuak indartzeko eta gainerako euskal erakundeekin lankidetzan jarduteko.

Eskerrik asko.